

eman la zabal zazu



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA



Practicumaren Arautegia

Gizarte Hezkuntzako Gradua

2012/13 ikasturtea

Eskola Batzarrean onartua, 2012-06-27

Dokumentu hau Gizarte Hezkuntzako Graduako Praktiketako Batzordeak egin du:

Asier Romero (praktiketako zuzendariordea)

Josebe Alonso, Nekane Beloki, María Ángeles Echevarría, Lola Fernández, Ana Flecha, Arantza Gogascoechea, Txema Hornilla, Yolanda Juanes, Begoña Ordeñana, Erika Corredera (ikaslea), Iruñe Markina (ikaslea), Estrella Rodríguez (ikaslea), Patricia Alejandra Rossello (ikaslea)

AURKIBIDE OROKORRA

0. HITZAURREA	3
1. ARAU OROKORRAK	4-5
2. PLAZEN ESKAINTZA ETA ESLEIPENA	5
3. IKASLEEK IKASTETXEA AUKERATZEA	5-6
4. TUTOREEN ESLEIPENA	6
5. BALIOZKOTZEAK	6-7
6. KASU BEREZIAK	7-8
7. EGONALDIAREN NOTAREN BALIOZKOTASUNA	9
8. TUTORETZA	9
9. PARTE HARTZEN DUTEN ERAGILEEN EGINKIZUNAK	9-11
10. EBALUAZIOA	12
11. ERANSKINAK	13-22

0. HITZAURREA

Unibertsitateko ikasleen prestakuntza praktiken arautegiak azaroaren 18ko 1707/2011 Errege Dekretua du oinarri, baita UPV/EHUko Ikasketen Gestiorako Arautegia ere. Azken horrek IX. kapituluaren 72. artikuluan Graduoko ikasketen Practicumaren oinarriko alderdiak zehazten eta antolatzen ditu. Halaber, arautegiak kontuan hartzen ditu Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolaren eta gizarte heziketako hainbat erakunderen artean sinatutako lankidetzak hitzarmenak. Beraz, arautegi hau aplikatu beharko da Gizarte Hezkuntzako Graduoko ikasleek Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte heziketako erakundeetan egingo dituzten prestakuntza praktikak kudeatu eta aztertzerakoan.

Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolako Praktiketako Zuzendariordetzak antolatu eta koordinatuko ditu praktikak, bertan parte hartzen duten erakunde, elkarte eta enprekin elkarlanean. Practicumarekin zerikusia duen edozein gorabehera konpontzeko, ikasleek Praktiketako zuzendariordearengana jo ahal izango dute.

Praktiketan eragile hauek parte hartuko dute: Praktiketako Zuzendariordetza, gizarte heziketako erakundeetako tutorea, UPV/EHUko tutorea eta ikasleak.

Titulazioko koordinatzaileari, gizarte heziketako erakundeetako tutoreei, UPV/EHUko irakasle tutoreei eta ikasleei aholkua emateko, Praktiketako Zuzendariordetzak informazio dokumentu zehatz batzuk izango ditu Practicum bakoitzerako (Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolaren web orriko Practicum atalean). Bertan, ikasleentzako, gizarte heziketako erakundeetako tutoreentzako eta UPV/EHUko irakasle tutoreentzako aholku orokorrak jasoko dira: lortu nahi diren helburuak, lan metodologiarik egokienak, garatu beharreko prestakuntza jarduerak eta zereginak, ebaluazio irizpideak, antolaketa alderdiak, ordutegiak, parte hartzen duten jakintza arloak/sailak eta praktikak modu egokian egiteko behar den informazio guztia.

Praktikak amaitu ondoren, Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolak kasuan kasuko ziurtagiriak igorriko dizkie gizarte heziketako erakundeetako tutoreei.

Praktika hauen bidez ikasleek ezin izango dute gizarte heziketako erakundeetako langileen eginkizuna bete, eta eginkizun desberdinak edota osagarriak izango dituzte. Praktikak ez dira ordainduak izango, eta ezin izango dira egin lan kontratu baten babespean.

Araututako prestakuntza praktikak direnez gero, automatikoki Eskola Aseguruak estaliko ditu, UPV/EHUko hitzarmenarekin bat etorriz. Practicuma Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolari atxikitako enborreko irakasgaia denez, ikastegiari berari dagokio irakasgaia antolatu eta arautzea. Ildo horretatik, Graduoko Lehenengo eta Bigarren Zikloko Ikasketen Gestiorako Araudiak honako hau dio 71. artikuluan: “Praktikak egiten diren bitartean, 28 urtetik beherako ikasleek eskola aseguruaren babesa izango dute. Adin horretatik aurrera, istripuen poliza kolektibo bat sinatu beharko dute. Nahi izanez gero, 28 urte bete aurretik ere sinatu ahal izango dute poliza hori, eskola aseguruaren osagarri gisa”.

Practicumeko Zuzendariordetza da Practicumaz zuzenean arduratzen dena, Akademia Antolakuntzarako Batzordeak eta Practicumeko Batzordeak lagunduta.

Practicumari dagokion informazio guztia (egitura, antolaketa, inprimakiak, etab.) Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolaren web orrian dago eskuragarri: <http://www.irakasleen-ue-bilbao.ehu.es>.

XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA: ARAU OROKORRAK

- Practicum II eta III egin ahal izateko, aurrekoa gaindituta eduki behar da.
- Gutxienez bi esku-hartze eremu landu beharko dira hiru praktikaldietan. Hortaz, Practicum I-erako aukeratutako esku-hartze eremua eta Practicum II-rako aukeratutakoa desberdinak izango dira.
- Ikasleek Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolak egokitutako erakundean egingo dute praktika egonaldia.
- Ikastetxeen esleipenak antolatzeke kudeaketa ugari egin behar denez, hilabete batzuk lehenago jarri beharko da martxan prozesua (are gehiago, aurreko ikasturtean prestatzen hastea komeni da), ikasleek arautegi honetan zehaztutako aurretiko baldintzak bete ditzaten.
- Ikasleek Irakasleen Unibertsitate Eskolak zehaztutako epean egingo dituzte praktikak. Praktikak egiteko epean aldaketaren bat egiteko, Praktiketako Zuzendariordetzaren baimena izan beharko dute.
- Praktikek iraun artean, ikasleek praktiketako ikastetxearekin adostutako lanaldiaren ordutegia beteko dute. Praktiketako Zuzendariordetzak antolatzen dituen jardunaldietara joango dira, baita Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolako irakasle tutoreek antolatutako praktiken prestakuntza eta analisirako mintegietara ere. Halaber, banakako memoria bat idatziko dute, Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolako tutoreak adierazitako irizpideei jarraituz.
- Practicumeko Zuzendariordetzari dagokio ikasleei egokitutako ikastetxearekin, praktikaldiarekin edo ordutegiarekin eta beste edozein alderdirekin lotutako aldaketak egitea. Beraz, ikasleek zuzendaritzatik bideratuko dituzte beren eskaerak, Practicumaren arautegi honetan kasu berezietarako zehaztutako baldintzen eta epeen arabera.
- Gizarte Hezkuntzako Gradua gaztelaniaz egiten duten ikasleek Practicum I, II eta III euskaraz egin ahal izango dituzte, baldin eta B2 edo pareko maila dutela frogatzen badute Praktiketako Zuzendariordetzaren aurrean. Irakasleen Eskolak ez du inolako azterketarik egingo ikasleek hizkuntza menperatzen dutela egiaztatzeke; hortaz, ikasleen ardura izango da gaitasun hori frogatzea.
- Gizarte heziketako erakundeari berari dagokio praktikaldia euskaraz egingo dela bermatzea. Dena dela, Praktiketako Zuzendariordetza hizkuntza premia horri erantzuten saiatuko da sinatuko dituen hitzarmenen bidez.
- Praktikak UPV/EHUtik kanpo egin nahi dituzten ikasleek (SICUE/SENECA programaren bidez, esaterako) unean uneko eskaintza baliatuko dute. Programa horien inguruko informazio guztia Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolaren web orrian dago, Mugikortasun Programak atalean.
- Garapenerako lankidetzak praktikak egin nahi dituzten Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolako ikasleek Praktiketako Zuzendariordetzak urtero egiten duen deialdia kontsultatu beharko dute, eskaintzen berri izateko eta hitzarmena zein erakunderekin sinatu den jakiteko. Informazio guztia Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolaren web orrian dago, Practicum atalean.
- Arautegia ez betetzea ikaslearen erantzukizuna izango da soilik, eta, beraz, ez da banakako hitzarmenik onartuko ikasleen eta UPV/EHUko edo beste erakunde bateko tutoreen artean.

1.1. Kronograma

	IKASTETXEETAKO EGONALDIAK	ALDIA	KREDITUAK
PRACTICUM I	5. modulua (300 ordu)	Iraila-urria-azaroa-abendua	12 ECTS kreditu
PRACTICUM II	7. modulua (300 ordu)	Iraila-urria-azaroa-abendua	12 ECTS kreditu
PRACTICUM III	7. modulua (450 ordu)	Otsaila-martxoa-apirila-maiatza	18 ECTS kreditu

1.2. Aurretiko prestakuntza

Ikastetxe batean praktikak egin aurretik, ikasleek Practicum bakoitzaren ezaugarrien arabera prestakuntza egin beharko dute. Prestakuntza saioretara eta antolatutako mintegietara joatea nahitaezkoa izango da. Ikasleek prestakuntza saio horien data eta jardunbideari buruzko informazio zehatza izango dute eskuragarri ikasturtearen hasieran, Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolaren web orriko Practicum atalean.

2. ARTIKULUA: PLAZEN ESKAINTZA ETA ESLEIPENA

Praktiketako Zuzendariordetzak urtero jakinaraziko du gizarte heziketako zein erakunderekin sinatu duen lankidetzaren hitzarmena (esku-hartze eremuen arabera sailkatuta), ikasleek aukera egiterakoan ahalik eta informazio gehiena izan dezaten. Gainera, orientaziorako hitzaldiak antolatuko dira praktikak lehen aldiz egingo dituzten ikasleentzako.

Ikasle bakoitzari plaza bat esleitzeko prozedura Praktiketako Batzordeak adostutako irizpideen arabera egingo da:

Ikasleek gutxienez bi esparru desberdinetan egin beharko dituzte hiru Practicumak, kudeaketa arazoak direla eta Praktiketako Zuzendariordetzak bideratu ezin duen kasuetan izan ezik.

Ikasleei ikastetxeak egokitu ondoren, plazaren datuak egiaztatu beharko dituzte ikasleek, eta okerren bat badago, Praktiketako Zuzendariordetzari jakinarazi beharko diote, okerrak zuzen ditzan.

3. ARTIKULUA: IKASLEEK IKASTETXEA AUKERATZEA

- Practicumean izena emateko epea hasi aurretik, Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolak inprimaki bat igorriko die ikastetxeei, bete dezaten eta ondoren Praktiketako Zuzendariordetzari bidali diezaiozten (1. eranskina). Bertan ikastetxeak eskaintzen duen Practicumari dagozkion datuak adierazi beharko dira.
- Practicuma Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolaren web orritik bertatik kudeatuko da. Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolak web orriko atarian argitaratuko du praktiketako ikastetxeen zerrenda eta bakoitzaren eskaintza, eta hala ikasleek zer nahiago duten pentsa dezakete. Erakunde bakoitzaren esku-hartze eremua ere zehaztutako da bertan. Ikasleek, ikastetxe bakoitzaren eskaintza kontuan hartuta, ikastetxea aukeratzeko eskaera orria bete beharko

dute (2. eranskina) eta Praktiketako Zuzendariordetzari igorri, zehaztutako epearen barruan.

- Ikastetxea aukeratzeko eskaera orrian (2. eranskina) ikasleek bi erakunde adierazi beharko dituzte eta bakoitzaren barruan praktikak zein bi esku-hartze eremutan egin nahiko lituzkeen.
- Praktiketako Zuzendariordetza ikasleei haiek aukeratutako eremuetako bat esleitzen saiatuko da. Nolanahi ere, Praktiketako Zuzendariordetzari dagokio ikasleari ikastetxea behin betiko esleitzea.
- Ikasle batek baino gehiagok praktikak eremu berean egin nahi badituzte eta plaza nahikorik ez badago, Praktiketako Zuzendariordetzak ikasketa irizpideak aplikatuko ditu esleipenak egiteko (espedientea eta gainditutako kreditu kopurua).
- Behin prozesu hori amaituta, zerrenda bat argitaratuko du Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolaren web orriko Practicum atalean. Bertan, ikaslearen datuak eta esleitutako plaza adieraziko dira.

4. ARTIKULUA: TUTOREEN ESLEIPENA

- Ikasturtea hasi eta Eskola Batzarrak kredituen banaketa onartu eta gero, Praktiketako Zuzendariordetzak parte hartzen duen sail bakoitzari dagokion ikasleen zerrenda jakinaraziko dio. Informazio hori jaso eta gero, sail bakoitzak bere saileko ikasleen praktiketara tutore gisa arituko diren irakasleen zerrenda bat igorri beharko dio Praktiketako Zuzendariordetzari.
- Sail bakoitzaren ardura izango da tutoreak esleitzea.
- Sail bakoitzaren informazioa jaso eta gero, Praktiketako Zuzendariordetzak zerrenda bat argitaratuko du Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolaren web orrian, Practicum atalean, ikasle bakoitzari egokitu zaion tutorea eta lehenengo saiorako data adierazita.
- Gizarte heziketako erakundearen ardura izango da tutore profesionalak esleitzea. Practicum hasi aurretik, posible den heinean, tutore gisa arituko diren profesionalen zerrenda eskatuko dio Praktiketako Zuzendariordetzak erakundeari.

5. ARTIKULUA: BALIOZKOTZEAK

Praktikak baliozkotzeko epea eta eskaera orriak Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolaren web orrian daude argitaratuta (Idazkaritza / Baliozkotzeak atalean). Ezarritako epetik kanpo aurkeztutako eskaerak ez dira aztertuko.

Idazkaritzan onartutako baliozkotze eskaera guztiak Praktiketako Zuzendariordetzak aztertuko ditu, Praktiketako Batzordearen aholkularitzarekin, eta Akademia Batzordeari igorriko dizkio, erabaki bat har dezan.

Ebazpenak Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolaren web orrian argitaratuko dira (Idazkaritza / Baliozkotzeak atalean), egutegian aurrez zehaztutako epearen barruan.

Baliozkotze kasuak	IRAKASGAI OSOA	EGONALDIA BAKARRIK
Practicum I	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Hezkuntzan diplomaduna baldin bada 	<ul style="list-style-type: none"> • 2. eranskinetako taulan adierazitako esku-hartze eremu edo programaren

	<p>(ikusi 1. oharra).</p> <ul style="list-style-type: none"> • Diplomaturako Practicumeko bi irakasgaiak egin baditu (ikusi 1. oharra). • Gutxienez 125 orduz aritu bada lanean gizarte hezitzaile gisa eranskinetako taulan adierazitako esku-hartze eremu edo programaren batean. 	<p>batean gizarte hezitzaile gisa lan egiten badu. Edonola ere, ikasleak irakasgaiari dagozkion gainerako helburuak bete beharko ditu (ikusi 2. oharra).</p> <p>*Baldin eta praktikaldia bukatzerakoan Practicum I-erako zehaztutako ordu kopurua beteko duela bermatzea posible bada.</p>
Practicum II	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Hezkuntzan diplomaduna bada. • Diplomaturako Practicumeko bi irakasgaiak egin baditu (ikusi 1. oharra). • Gutxienez 150 orduz aritu bada lanean gizarte hezitzaile gisa eranskinetako taulan adierazitako esku-hartze eremu edo programaren batean. 	<ul style="list-style-type: none"> • 2. eranskinetako taulan adierazitako esku-hartze eremu edo programaren batean gizarte hezitzaile gisa lan egiten badu. Edonola ere, ikasleak irakasgaiari dagozkion gainerako helburuak bete beharko ditu (ikusi 2. oharra). <p>*Baldin eta praktikaldia bukatzerakoan Practicum II-rako zehaztutako ordu kopurua beteko duela bermatzea posible bada.</p>
Practicum III	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Hezkuntzan diplomaduna bada. • Diplomaturako Practicumeko bi irakasgaiak egin baditu (ikusi 1. oharra). • Gutxienez 270 orduz aritu bada lanean gizarte hezitzaile gisa eranskinetako taulan adierazitako esku-hartze eremu edo programaren batean. 	<ul style="list-style-type: none"> • 2. eranskinetako taulan adierazitako esku-hartze eremu edo programaren batean lanean Gizarte Hezitzaile gisa lan egiten badu. Edonola ere, ikasleak irakasgaiari dagozkion gainerako baldintzak bete beharko ditu (ikusi 2. oharra). <p>*Baldin eta praktikaldia bukatzerakoan Practicum III-rako zehaztutako ordu kopurua beteko dela bermatzea posible bada.</p>

*Baldintza horietako bat bete beharko da gutxienez.

1. oharra: Diplomaturako plan zaharreko Practicum (osorik) Gizarte Hezkuntzako Gradu plan berriarekin baliozkotuko da.

2. oharra: Egonaldiak bakarrik baliozkotzen diren kasuetan, ikasleek dagokien Practicumaren memoria entregatu beharko dute eta irakasgaiak barne hartzen dituen bilera, mintegi, jardunaldi, tutoretza etab. guztietara joan.

6. ARTIKULUA: KASU BEREZIAK: LANALDI ERDIA, DATA ALDAKETAK...

Kasu berezien babespean dauden ikasle guztiak Practicum bakoitzerako zehaztutako epeetan eta kasuan kasuko dokumentazio guztia aurkeztuta izapidetu beharko dituzte eskaerak. Kasu berezietako eskaera egiteko epea zehaztuta dago Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolaren web orrian, Practicum atalean. Ezarritako epetik kanpo aurkeztutako eskaerak ez dira aztertuko.

Zehaztutako epearen barruan eta formaren arabera aurkeztzen diren eskaera guztiak Praktiketako Zuzendariordetzak aztertuko ditu Praktiketako Batzordearen laguntzaz, eta

ebazpenak Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolaren web orrian argitaratuko dira (Practicum atalean), egutegian zehaztutako epearen barruan.

Praktiketako Zuzendariordetzak onartzen dituen kasu berezietako eskaerek eskola egutegian aldaketa eragiten duten eta beste irakasgai batzuei eragiten dieten guztietan erantzukizun osoa ikaslearena izango da. Practicumeko irakasgaietan arreta berezia eskatzeko eskubidea edukitzeak ez du esan nahi ikasleak gainerako irakasgaietan arreta berezia izan behar duenik.

6.1. Praktika egonaldiaren datak aldatzea: ohiz kanpoko kasuak

Oro har, Practicuma enborreko irakasgai bat izanik, aurretik zehaztutako ordutegi bat dauka, nahitaez errespetatu beharrekoa.

Data aldatzeko eskaera ohiz kanpoko kasuetan eta dokumentazio egokiarekin justifikatuta badago soilik aztertuko da (istripua, gaixotasuna, amatasuna, mugikortasun programa batean parte hartzea –ERASMUS, SICUE...–).

Data aldatzeak ez dio ikasleari baimenik ematen matrikulatuta dagoen beste ikastaro edo irakasgai batzuetara huts egiteko.

Ikasleak bere egoera frogatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du, dagokion epearen barruan.

6.2. Praktiketako ikastetxea aldatzea

Ikasleek dagokien praktiketako ikastetxean egingo dute egonaldia. Bakarrik ohiz kanpoko kasuetan eta dagokion dokumentazioarekin justifikatuz gero eskatu ahal izango dute ikastetxea aldatzeko.

6.3. Practicumean sor daitezkeen gorabeherak

Practicumari buruz ikasleek egiten dituzten ohar guztiak (zalantzak, kezkak, etab.) bideratze aldera (baliozkotze eta kasu berezietarako eskaerak izan ezik), Praktiketako Zuzendariordetzak inprimaki bat egin du (4. eranskina) ikasleek beren eskaera idatziz jaso eta izapidetu dezaten. Zuzendariordetzak zuzenean jakinaraziko die ikasleei eskaeraren inguruan hartutako erabakia.

***6.1, 6.2 eta 6.3 puntuetarako jardunbidea:** Horretarako, instantzia bat, eskaera egiteko arrazoiak azaltzen dituen araututako inprimaketako bat (3., 4. eta 5. eranskinak) eta dagokion agiriak aurkeztu beharko dituzte. Ikasleek dokumentu hori Idazkaritzan erregistratu beharko dute, eta, ondoren, Praktiketako Zuzendariordetzak, Praktiketako Batzordearen aholkularitzarekin, eskaera guztiak aztertuko ditu jasotako dokumentazioa ikusita, eta erabaki bat hartuko du. Erabaki hori Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolaren web orrian argitaratutako du, Practicum atalean.

Inprimaki guztiak Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolaren web orriko Practicum atalean daude eskuragarri. Inprimakiak bete ondoren, ikasleek Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Erregistro Orokorretako batean aurkeztu beharko dituzte, edo Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan (azaroaren 27ko Estatuko Aldizkari Ofiziala) zehaztutako beste lekuren batean.

7. ARTIKULUA: PRAKTIKETAKO IKASTETXEAN EGINDAKO EGONALDIAREN NOTAREN BALIOZKOTASUNA

Soilik praktiketako egonaldia gaudituz gero, nota ez da gordeko hurrengo ikasturteetarako; hau da, matrikulatu eta praktiketako egonaldia berriro egin beharko dute ikasleek (Graduko eta lehenengo eta bigarren zikloko ikasketen gestiorako UPV/EHUko arautegia, V. kapitulua).

Salbuespenak: dokumentuen bidez justifikatutako arrazoi larriengatik gauditutako praktiketako egonaldiaren nota urtebetez gordetzeko eskatu ahal izango dute, baina nahitaezkoa izango da berriro matrikulatzea.

Praktiketako ikastetxeko egonaldia bakarrik baliozkotzen den kasuetan, salbuespen hori eskatu den ikasturterako bakarrik izango da baliozkoa. Salbuetsitako ikasle batek memoria egiten ez badu edo gauditzen ez badu, hurrengo ikasturtean egin beharko du egonaldia edo, hala badagokio, beste salbuespen bat eskatu beharko du.

8. ARTIKULUA: TUTORETZA

Praktikaldian tutoretza jarraipena Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolako irakasleek eta praktikak egingo diren ikastetxeko profesional batek egin beharko dute. Ikasleek ezin izango dute inolaz ere erakundeetako langileen lana egin, eta eginkizun desberdinak edota osagarriak izango dituzte. Hala ez bada, ikasleak horren berri eman beharko dio Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolako irakasle tutoreari edo Praktiketako Zuzendariordezari.

Tutoreek beren tutoretza lana koordinatu beharko dute, praktiketako ikasleen prestakuntza beharrak egokitu eta adoste aldera. Koordinazio hori egiterakoan, Praktiketako Batzordeak egonaldia hasi aurretik emandako aholkuak kontuan hartuko dira.

Praktiketan dauden ikasleekin familia lotura duten pertsonak tutore lana egin ahal izango dute, baina ezin izango dituzte inolaz ere ebaluatu.

9. ARTIKULUA: PARTE HARTZEN DUTEN ERAGILEEN EGINKIZUNAK

9.1. Practicumeko Zuzendariordezta

- Moduluaren eta titulazioaren koordinatzaileen lana koordinatzea.
- Ikastetxe, erakunde eta entitateekin praktiketako hitzarmenak egiterakoan kalitatea eta prestakuntzarako egokitasuna kontuan hartzea.
- Ikasleak praktiketan parte hartuko duten ikastetxeetan banatzea.
- Parte hartuko duten erakundeen zuzendaritzekin harremanetan jartzea, helburuen, jardueren eta ebaluatzeko arautegiaren berri emateko.

9.1.1. Practicumeko Zuzendariordezta: atxikitako AZPko langileak

- Zereginak banatzeko eta Practicuma egituratzeko kronograman zehaztutako administrazio kudeaketa batzuk egitea.

9.2. Praktiketako batzordea

Praktiketako zuzendariordeak eta titulazioan eskolak ematen dituzten sail bakoitzeko irakasleek osatzen dute Praktiketako batzordea. Gomendagarria litzateke Gizarte Hezkuntzako titulazioko koordinatzaileak batzordean hartzen diren erabakien berri izatea.

Eginkizunak:

- Zuzendaritzari eta sailtako koordinatzaileei batzordean hartzen diren erabakien berri ematea.
- Praktiak arautzeko arautegia egitea, eguneratzea eta betetzen dela bermatzea; arautegia Eskola Batzarrak onartu beharko du.
- Gizarte Hezkuntzako praktika beharrei erantzutea, Praktiketako Zuzendariordetzak eskatzen duenaren arabera.
- Baliozkotze eta kasu berezien eskaerak ebaluatzea.
- Jardunaldiak, mintegiak eta abar antolatzea, bertan parte hartuko duten irakasleen laguntzaz.
- Practicum guztien gida egitea, eguneratzea eta zabaltzea.
- Indarreko praktika planean parte hartzen duten eragileen artean sor daitezkeen arazoak konpontzeko aholkuak ematea eta bitartekotza lanak egitea.

9.3. Erakundeko tutorea

Gizarte Hezkuntzan eskarmentu handiko profesional bat izango da, eta, ahal izanez gero, arlo horretan tituluduna. Bere ikastetxean praktketan dauden ikasleen prestakuntza jarduerak koordinatzeaz eta unibertsitatearekiko harremanez arduratuko da.

Eginkizunak:

- Praktiketako ikasleak hartzea eta egiten dituen jarduera eta lanen jarraipena egitea, aholkuak eman eta laguntzeko.
- Ikasle bakoitzari egokitu zaion taldeari buruzko informazioa ematea eta egin beharreko prestakuntza ekintzak egiteko ikastetxeak dituen baliabideen berri ematea.
- Ikastetxeko egonaldian ikasleen zeregina antolatzea.
- Erakundean izango dituen zereginen eta erantzukizunen berri ematea.
- Unibertsitateko irakasle tutoreekin batera koordinazioa eta erakundearen arteko kolaborazioa sustatzea, programan zehaztutako jarduerak garatze aldera.
- Ikasleek Practicumean egin beharreko eginkizunetan pixkanaka autonomia eta erantzukizuna izateko aukera ematea.
- Praktiketean dauden ikasleak, ahal den heinean, erakundeko gainontzeko langileekin elkarlanean aritu daitezzen sustatzea.
- Practicumaren plan orokorrean, ikasleek garatu beharreko berariazko prestakuntza ekintzak proposatzea.
- Prestakuntza prozesuan, ikasleei beren jardunaren indargune eta ahulguneen berri ematea, praktiketako jarrera eta aprobetxamendua barne.
- Irakasle guztien artean adostutako amaierako balorazio bat egitea, ikasle bakoitzak lortutako gaitasunak ebaluatzeko.
- Irakasleen Eskolako praktiketako tutoreari eta bere ikastetxeko arduradun edo koordinatzaileari Practicumean gerta litezkeen gorabeheren berri ematea.
- Practicumak hobetzeko egokiak iruditzen zaizkion iradokizunak eta ekarpenak egitea.

9.4. Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolako praktiketako tutorea

Pertsona hau Practicumean parte hartzen duten sailetako irakasle bat izango da. Bere sailak izendatuko du Practicumeko irakasle.

Eginkizunak:

- Praktiketari dauden ikasleak hartzea eta laguntza ematea, beharrezko aholkuak emanaz eta ikastetxean egingo duten lana bideratuz.
- Ikasleei Practicumaren programa eta hari buruzko informazioa ematea.
- Practicumaren Zuzendariordetzak eta titulazioko koordinatzaileak deitutako bileretara joatea.
- Ikasleari orientazioa ematea, teoria eta praktikaren arteko lotura ikus dezan.
- Praktiketari dauden ikasleekin mintegiak egitea, esku-hartze eremu desberdinetan bizitako esperientziak elkarri kontatzeko.
- Behaketa prozesuan sor daitezkeen arazoak taldean konpontzen saiatzea, ingurunearen azterketan egindako lana aztertzea, eta abar.
- Erakundeko tutore profesionalarekin batera koordinazioa eta erakundearen arteko lankidetzaren sustatzea, programan zehaztutako jarduerak garatze aldera.*
- Mintegien egutegia zehaztea ikasleekin egindako lehenengo bileran.
- Ikasleei praktiketako memoria egiteko orientazioa ematea, eta memoria baloratzea eta kalifikatzea, ezarritako ildoak kontuan hartuta.
- Praktikaldia kalifikatzea, ikasleak egindako lanak, erakundeko arduradunak egindako ebaluazioa eta praktiken segimenduan egindako oharra kontuan hartuta.
- Practicumaren hobetzeko iradokizunak eta ekarpenak egitea.

*Gomendagarria litzateke, betiere tutore lanari dagozkion kredituak aitortuz gero, ikastetxeko tutorearekin hitz egitea, praktiken ildo orokorrak azaltzeko eta bileren egutegiak zehazteko. Irakasleek ez dituzte ikasleek praktikak burutuko dituzten ikastetxeak nahitaez bisitatu behar, baina hala egitea gomendatzen da.

9.5. Ikasleak

- Practicumaren faseak ezagutzeko eta parte hartzea (informazio bilerak, plazen banaketa, memoria entregatzea...) eta fase guztiak betetzeko laguntza ematea.
- Irakasgaiaren antolatutako mintegi, jardunaldi eta bestelako ekintzetara joatea eta horietan parte hartzea.
- Ikastetxearekin adostutako asistentzia eta puntualtasun arauak betetzea, eta bertako araudia errespetatzea.
- Ikaskuntzarekiko jarrera positiboa adieraztea, esku-hartze eredu berritzaileak sortuz.
- Praktikaldian egindako jarduerari dagokien lanbidearen kode deontologikoan zehaztutako konfidentzialtasunaren printzipioa eta bestelako arauak errespetatzea.
- Ikastetxeko nahiz unibertsitateko tutorearekin lankidetzaren aritzea.
- Practicumean parte hartzen duten eragile guztiekin errespetuzko harremana izatea.

10. ARTIKULUA: EBALUAZIOA

Praktikaldia amaitzerakoan kalifikazio bat eman beharko da ikasleek prestakuntza fase honetan lortutako gaitasunak ahalik eta modurik bidezkoenean adierazteko. Ebaluazioa taldeko prozesutzat dugunez, Practicumaren protagonista guztiek parte hartuko dute kalifikazioak ematerakoan (ikasleek eta erakundeko eta Unibertsitateko tutoreek).

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.- Arautegi honetako eranskinak onartzea eta eranstea ez da arautegiaren aldaketatzat hartuko.

AZKEN XEDAPENA

Arautegi hau indarrean sartuko da Eskola Batzarrak onartu eta hurrengo egunean.

1. ERANSKINA

PRACTICUM PLAZEN ESKAINTZAREN DATUAK/ DATOS PARA LA GESTIÓN DE LA MATRICULACIÓN EN LAS ENTIDADES

1. Entitatearen datuak / Datos de la Entidad

Entitatearen izena/Nombre de la Entidad:		
Helbidea/Dirección:		
Herria/Ciudad:	Lurraldea/Territorio:	IFK/CIF:
Helbide elektronikoa /E-mail:	Telefonoa:	
	Faxa:	

2. Praktiketako arduraduna/Responsable de prácticas:

Izena/Nombre	
Telefonoa	
Helbide elektronikoa /E-mail	

3. Plaza kopurua/Número de plazas:

-PRACTICUM I (Gradua/Grado)

Datak (2012ko irailaren 17tik abenduaren 21era / Del 17 de septiembre al 21 de diciembre de 2012)

Har dezakezuen ikasle kopurua/Número de alumnos/as que podéis acoger	
---	--

-PRACTICUM I eta II (Diplomatura)*

Datak (2012ko urriaren 15etik 2013ko maiatzaren 17ra / Del 15 de octubre de 2012 al 17 de mayo de 2013)

Har dezakezuen ikasle kopurua/Número de alumnos/as que podéis acoger	
---	--

*Ikasle gutxi izango dira / Será poco alumnado.

3.1. Erakundearen barruan zentro eta/edo programa desberdinak baldin badaude, azaldu zenbat ikasle har ditzakeen eta non egongo diren/ En el caso de ser una entidad con diferentes centros y/o programas, explicitar cuantos alumnos/as se solicitan para cada uno de ellos y dónde se ubican.

Erakundea/Entidad-Programa	Ikasle kopurua/Número de alumnado

4. Zure erakundearen tutore izan daitezkeen datuak/ Datos de los posibles tutores/as en la entidad:

Izen-abizenak/Nombres y apellidos	NAN/DNI	Erakundea/Entidad

5. Zein lan eremutan kokatzen da zuen eskaintza gure ikasleentzako? / ¿En qué sector de intervención se sitúa vuestra oferta para nuestro alumnado?

LAN EREMUAK / ÁMBITOS DE INTERVENCIÓN	
1. Babes eta justizia sistema / Sistema de Protección y Justicia	
2. Hezkuntza sistema / Sistema educativo	
3. Aisialdirako gune soziokulturalak / Espacios socioculturales y de ocio	
4. Gizarte bazterketa edo bazterketarako arriskua (droga menpekotasuna, inmigrazioa,	

emakumea...) / Exclusión o riesgo de exclusión (drogodependencia, inmigración, mujer...)	
5. Gizarteratze soziolaborala (epe luzeko langabetuak, kolektibo bereziak) / Inserción socio laboral (parados de larga duración, colectivos específicos)	
6. Etengabeko ikaskuntza eta gizarte parte-hartzea / Aprendizaje permanente y participación social	
7. Justizia / Justicia	
8. Etengabeko ikaskuntza eta gizarte parte-hartzea. Belaunaldien arteko programak / Aprendizaje permanente y participación social. Programas intergeneracionales	
9. Instituzionalizatuta dauden pertsonak / Personas institucionalizadas	
10. Autismoa / Autismo	
11. Down sindromea, garuneko paralisia... / Síndrome de Down, parálisis cerebral...	
12. Gaixotasun mentalak: eskizofrenia, paranoia... / Enfermedades mentales: esquizofrenia, paranoia...	
13. Garapenerako kooperazioa / Cooperación al desarrollo	

***Dagokion laukian ‘x’ bat jarri** / Pon una ‘x’ en el lugar que corresponda.

2. ERANSKINA
GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA
ERAKUNDEA ESKATZEKO ORRIA
 Impreso para solicitar entidad

Izen-abizenak / Nombre y apellidos:	
NAN zenbakia / DNI:	
Helbide elektronikoa ofiziala/Correo electrónico oficial:	@ikasle.ehu.es
Telefono mugikorra / Teléfono móvil:	
Bizilekua / Lugar de residencia:	

Ikasturtea/Curso:	
Taldea/ Grupo:	01 31

Zein practicum egin behar duzu? / ¿Qué practicum tienes que realizar?			
Practicum-I	Practicum-II	Practicum-III	

Zein erakundetan egin dituzu aurreko praktikak? / ¿En qué institución has realizado las prácticas anteriores? **
Practicum-I:
Practicum-II:

****Hirugarren mailako ikasleek ez dute erantzun behar** / Los alumnos/as de 3º curso no tienen que responder a esta pregunta.

Ikaslearen sinadura / Firma del estudiante:

Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolako zuzendariari,
 A la atención del Sr./Sra. Director/a de la Escuela Universitaria de Magisterio de Bilbao

Zer egin behar duzu? / ¿Qué tienes que hacer?

1. Aukeratu bi kolektibo, x batekin adieraziz / Selecciona dos colectivos marcando con una x.
2. Aukeratu bi lan eremu kolektibo bakoitzaren barnean (1etik 4ra arteko zenbakiekin preferentzia zehaztuz) / Selecciona dentro de cada colectivo dos ámbitos de intervención (detallando la preferencia con un número del 1 al 4).

KOLEKTIBOAK / COLECTIVOS		LAN EREMUAK / ÁMBITOS DE INTERVENCIÓN	
1. Adin txikikoak (haurrak, nerabeak eta gazteak) / Menores de edad (infancia, adolescencia y juventud)		1. Babes eta justizia sistema / Sistema de Protección y Justicia	
		2. Hezkuntza sistema / Sistema educativo	
		3. Aisialdirako gune soziokulturalak / Espacios socioculturales y de ocio	
2. Pertsona helduak / Personas adultas		1. Gizarte bazterketa edo bazterketarako arriskua (droga menpekotasuna, immigrazioa, emakumea...) / Exclusión o riesgo de exclusión (drogodependencia, inmigración, mujer...)	
		2. Gizarteratze soziolaborala (epe luzeko langabetuak, kolektibo bereziak) / Inserción socio laboral (parados de larga duración, colectivos específicos)	
		3. Etengabeko ikaskuntza eta gizarte parte-hartzea / Aprendizaje permanente y participación social	
		4. Justizia / Justicia	
3. Pertsona zaharrak / Personas mayores		1. Etengabeko ikaskuntza eta gizarte parte-hartzea. Belaunaldien arteko programak / Aprendizaje permanente y participación social. Programas intergeneracionales	
		2. Instituzionalizatuta dauden pertsonak / Personas institucionalizadas	
4. Gutxitasunen bat duten pertsonak / Personas con discapacidad		1. Autismoa / Autismo	
		2. Down sindromea, garuneko paralisia... / Síndrome de Down, parálisis cerebral,...	
		3. Gaixotasun mentalak: eskizofrenia, paranoia... / Enfermedades mentales: esquizofrenia, paranoia,...	
5. Garapenerako kooperazioa / Cooperación al desarrollo		1. Garapenerako kooperazioa / Cooperación al desarrollo	

OHARRAK/ OBSERVACIONES

***Orri biak grapatuta entregatu behar dira / Las dos hojas se tienen que entregar grapadas.

3. ERANSKINA

PRACTICUMEKO ESKAERA BEREZIETARAKO ORRIA

Impreso para solicitudes especiales de Practicum

Data/Fecha:	
Izen-abizenak / Nombre y apellidos:	
NAN zenbakia / DNI:	
Helbidea / Dirección:	
Herria / Localidad:	
Probintzia/ Provincia:	
Posta kodea/ Código postal:	
Helbide elektroniko ofiziala/Correo electrónico oficial:	@ikasle.ehu.es
Telefono mugikorra / Teléfono móvil:	

Ikasturtea/Curso:	
--------------------------	--

Zein Practicum egin behar duzu? / ¿Qué Practicum tienes que realizar?			
Practicum-I		Practicum-II	
		Practicum-III	

Kasu berezi mota/ Tipo de caso especial:

Zer eskatzen duzu? / ¿Qué solicitas?

***Gehitutako dokumentazioa / Documentación aportada.

Ikaslearen sinadura / Firma del estudiante:

Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolako zuzendariari,
A la atención del Sr./Sra. Director/a de la Escuela Universitaria de Magisterio de Bilbao

4. ERANSKINA

IKASTETXE ALDAKETA ESKATZEKO ORRIA

Impreso para solicitud de cambio de centro

Data/Fecha:	
Izen-abizenak / Nombre y apellidos:	
NAN zenbakia / DNI:	
Helbidea / Dirección:	
Herria / Localidad:	
Probintzia/ Provincia:	
Posta kodea/ Código postal:	
Posta elektronikoa ofiziala/Correo electrónico oficial:	@ikasle.ehu.es
Telefono mugikorra / Teléfono móvil:	

Ikasturtea/Curso:	
--------------------------	--

Zein Practicumetan zaude matrikulatuta? / ¿En qué Practicum estás matriculado?			
P-I		P-II	
		P-III	

Zergatik eskatzen duzu ikastetxe aldaketa? / ¿Porqué solicitas cambio de centro?

***Gehitutako dokumentazioa / Documentación aportada.

Ikaslearen sinadura / Firma del estudiante:	Ikastetxe aldaketa eskatzeko derrigorrezkoa da tutorearen onespena eta sinadura / Para la solicitud de cambio de centro es necesario el Vto Bº del tutor/a del Practicum

Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolako zuzendariari,

A la atención del Sr./Sra. Director/a de la Escuela Universitaria de Magisterio de Bilbao

5. ERANSKINA
PRACTICUMEKO GERTAKARIEN ORRIA
 Impreso de incidencias de Practicum

Data/Fecha:	
Izen-abizenak / Nombre y apellidos:	
NAN zenbakia / DNI:	
Helbidea / Dirección:	
Herria / Localidad:	
Probintzia/ Provincia:	
Posta kodea/ Código postal:	
Helbide elektronikoa ofiziala/Correo electrónico oficial:	@ikasle.ehu.es
Telefono mugikorra / Teléfono móvil:	

Ikasturtea/Curso:	
--------------------------	--

Zein Practicum egiten ari zara? / ¿Qué Practicum estás realizando?				
Practicum-I		Practicum-II		Practicum-III

Zer gertatzen zaizu? / ¿Qué te sucede?

***Zer eskatzen duzu? / ¿Qué solicitas?

***Gehitutako dokumentazioa/ Documentación aportada.

Ikaslearen sinadura / Firma del estudiante:

Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolako zuzendariari,
 A la atención del Sr./Sra. Director/a de la Escuela Universitaria de Magisterio de Bilbao

6. ERANSKINA PRACTICUMERAKO HITZARMENAREN EREDUA

**BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLAREN (UPV/EHU) ETA
..... ERAKUNDEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, GIZARTE
HEZKUNTZAKO GRADUKO IKASLEEK PRESTAKUNTZA PRAKTIKOA EGIN DEZATEN.**

Bilbon, 20.....(e)koaren(e)(a)n

BILDUTA

Alde batetik,, Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolako zuzendari den aldetik.

Eta bestetik,, erakundearen ordezkari den aldetik, helbidea (*herria*), (*kalea*) eta NAN/IFK/IFZ duena.

Bi aldeek hezkuntza lankidetzarako hitzarmen hau sinatzeko legezko gaitasun nahikoa elkarri aitorturik,

HAU ADIERAZTEN DUTE:

Lehenengoa: Estatutuetakako 14. eta 243.1 artikuluekin bat etorrira, Gobernu Kontseiluak baimena eman dezake ikasleek irakaskuntzaren parte bat beste erakunde batean jasotzeko, hitzarmen baten bidez ikastegiak eta, kasua denean, sailek hala proposatzen dutenean, eta ikasketen izaera dela eta beharrezkoa bada.

Bigarrena: Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolaren (UPV/EHU) helburuetako bat etorkizuneko Gizarte Hezkuntzako Graduko profesionalak heztea eta prestatzea da, gizartearen eskariei erantzunez. Horregatik, beharrezkoa da ikasleek kalitatezko prestakuntza praktikoa izatea, lan munduko errealitatea gertutik ezagutzeko aukera emango dioten erakundeetan.

Hirugarrena: Hitzarmen honen xedea IUEren eta erakundearen arteko lankidetzaren harremanari eustea eta indartzea da, horretarako bi erakundeen baliabideen erabilerarik egokiena bultzatuta, eta horrela ikasleen prestakuntza partekatu eta hobetuko delakoan.

Bi aldeek arteko konpromiso hori betetzeko beharrezkoa izango da:

-Ikaslearen tutore gisa arituko den eta haren eguneroko prestakuntza prozesuaren jarraipena egingo duen pertsona bat izendatzea.

-Bi erakundeek arteko harremana indartzea, lanbide arloko gaitasun sakontzeko eta elkarrekin proiektuak garatzeko.

Aurreko adierazpen horiek aintzat hartuta, alde bietan ikasleen prestakuntzarako lankidetzaren hitzarmen hau sinatu dute ondoko klausulen arabera.

KLAUSULAK

Lehenengoa: Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolako zuzendariak unibertsitateko irakasle bat egokituko dio ikasle bakoitzari haien prestakuntzaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko, erakundeak izendatutako ordezkariarekin elkarlanean.

Bigarrena: Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolak graduatarako praktika eta jardueren programa egingo du eta haren berri emango die erakundeek praktikaldi bakoitza hasi baino lehen. Programan datu hauek zehaztuko dira, gutxienez:

- Erakundeari egokitu zaizkion ikasleen zerrenda eta tutorearen izena.
- Ebaluaziorako eta kontrolerako sistemak.
- Lortu nahi diren helburuak eta taldeko jarduerak.
- Tutore profesionalaren eta akademikoaren eginkizunak.

- e) Egutegiaren proposamena.

Hirugarrena:

- a) Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolak *venia docendi* emango die automatikoki erakunde kolaboratzaileko tutoreei, eta ordainsaririk gabeko irakasle kolaboratzaile izaera aitortuko die. Izendapen horren bidez unibertsitateko instalazioak erabili ahal izango dituzte beren etengabeko prestakuntzarako (liburutegiak, kirol jarduerak eta instalazioak, mintegiak, jardunaldiak, ikastaroak eta abar).
- b) Unibertsitateak erakundearen eta Practicumeko jardueretan parte hartu duten profesionalen arteko lankidetzaren bermatuko du.

Laugarrena:

- a) Euskal Herriko Unibertsitateak erantzukizun zibileko poliza dauka kontratatuta ikasleek praktiketan sor litzaketan kalteetarako.
- b) Unibertsitateak ez ditu bere gain hartuko kalteak, ezta ikasleak berak ere, baldin eta kalteak erakundearen tutoreak praktiketako programa zehaztuta ez dagoen aginduren bat ematearen ondorio badira.
- c) Eskola aseguruaz gain aseguru osagarria izan nahi duten ikasleek unibertsitateak hitzartuta duen "CUM LAUDE" istripuetarako poliza kolektiboa sina dezakete. 28 urtetik gorako ikasleek nahitaez izenpetu beharko dute aseguru hori.

Bosgarrena: Erakundeak praktiketarako behar diren bere instalazio eta baliabideak erabiltzeko aukera bermatuko du, eta zenbat ikasle har ditzakeen zehaztuko du, dauzkan baliabideak eta lortu nahi diren helburuak kontuan hartuta.

Seigarrena: Ikasle bakoitzari egokitzen zaion tutoreak eginkizun hauek izango ditu, gutxienez:

- Ikasleari harrera egitea eta jardueren eta lanen jarraipena egitea, aholkuak eta laguntza emateko.
- Ikasle bakoitzari egokitu zaion taldeari buruzko informazio zehatza ematea eta egin beharreko prestakuntza ekintzak egiteko ikastetxeak dituen baliabideen berri ematea.
- Ikaslearen zereginak antolatzea, erakundearen dagoen bitartean.
- Erakundearen izango dituen zereginen eta erantzukizunen berri ematea.
- Unibertsitateko irakasle tutoreekin batera, tutoreen arteko koordinazioa eta erakundearen arteko kolaborazioa sustatzea, programan zehaztutako jarduerak garatze aldera.
- Ikasleek Practicumean egin beharreko eginkizunetan pixkanaka autonomia eta erantzukizuna izateko aukera ematea.
- Praktiketan dauden ikasleek, ahal den heinean, erakundearen gainontzeko langileekin elkarlanean aritu daitezela sustatzea.
- Practicumaren plan orokorrean, ikasleek garatu beharreko berriarazko prestakuntza ekintzak proposatzea.
- Prestakuntza prozesuan, ikasleari bere jardunaren indarguneen eta ahulguneen berri ematea, praktiketako jarrera eta aprobetxamendua barne.
- Irakasle guztien artean adostutako amaierako balorazio bat egitea, ikasle bakoitzak lortutako gaitasunak ebaluatzeko.
- Irakasleen Eskolako praktiketako tutoreari eta bere ikastetxeko arduradun edo koordinatzaileari Practicumean gerta litezkeen gorabeheren berri ematea.
- Practicumaren hobetzeko gokiak iruditzen zaizkion iradokizunak eta ekarpenak egitea.

Zazpigarrena: Erakundeak ez du dirurik jasoko UPV/EHuren eskutik, bere instalazioetan egindako praktiken truke.

Zortzigarrena: Ikasleek egokitzen zaizkien Unibertsitateko tutoreen kontrol eta begiradapean egingo dituzte praktikak, eta erakunde kolaboratzailearen funtzionamendu arauak beteko dituzte uneoro. Horrez gain, ikasleek praktikaldian egindako jardueren dagokien lanbidearen kode deontologikoan zehaztutako konfidentzialtasunaren printzipioa eta bestelako arauak errespetatu beharko dituzte.

Bederatzigarrena: Praktiken ordutegia praktikaren ezaugarrien eta erakunde bakoitzak libre dituen orduen arabera zehaztutako da, erakunde kolaboratzailearen ohiko jarduerari ahalik eta traba gutxien egiteko.

Hamargarrena: Practicum I eta IIan, guztira, 12 kreditu lortu beharko dira, eta Practicum IIIan 18.

Hamaikagarrena: Praktiak egiten ari diren ikasleek ez dute inolaz ere inolako lan harremanik edo bestelako loturarik izango erakundearekin eta ez dute ordainsaririk jasoko egindako lanaren truke.

Hamabigarrena:

- a) Hitzarmen honek mugagabeko indarraldia izango du sinatzen den unetik aurrera. Hala ere, alderdiek bertan behera utzi ahal izango dute; baina hitzarmen honek hurrengo ikasturtean ondorioz ez izatea nahi badute, aurreko ikasturteko martxoan baino lehen adierazi beharko dute.
- b) Hitzarmena bertan behera uzteko nahia idatziz adierazi beharko da, eta bertan behera uzteak ez du eraginik izango lehendik hasita zeuden praktiketan.

Eta adierazitako guztiarekin ados daudela adierazteko, bi aldeek hezkuntza lankidetzarako hitzarmen honen bi ale sinatu dituzte, idazpuruan adierazitako tokian eta egunean.

(sinadurak)